

Lizar hegalariaiak



Ezkerrean,
Garaiko
Landetxeko ate
gaineko urrezko
mihura.
Eskuinean,
lizarra (*Fraxinus
excelsior*).

ALDOKA-MALDOKA NABIL, batera eta bestera azken aldi honetan, baratzeko liburu berria dela eta. Baratzea ahoan, baina mihura (*Viscum album*) dabilkit buruan. Garai herri dotorean izan naiz lehengo igandean eta nire bizitzako lehen sermoia eman dut: elizan aurkeztu behar izan nuen liburua, kultur etxean ez baitziren kabitzen bertaratutako ehun eta hirurogei lagunak. Kultur etxetik elizarako bidean dago Garaiko Landetxea deiturikoa. Hortxe du, ateburuan, mihura sorta, txibista gorritz apainduta. Kolorea: urrezkoa; iazkoa izango da, jarri berria ez behintzat. Ez zaio alferrik esaten “urrezko adarra” mihurari. Sanjoanetan zaharra sutara eta sorta berria jartzen da. Ebaki berritan berde, baina laster urreztatuko da. Etxea

babesten duenean urrezkoa da “urrezko adarra”.

Aldoka-maldoka Zugarramurdira, bertan baitago Mihura baserria. Itxuraz, izen bereko Urdazubikoarekin batera, munduan abizen hori hedatzen dutenen habia. Baita zezenketetan burdin marka ezagunena daraman Miura izenarena ere. Zezen eta behi hiltzaile fama duen kasta hori, bai; sortu zenetik kasta horretakoek hamaika lagun hil omen dituzte. Donostian, 1921eko abuztuaren 15ean Emilio Moreno Moreno banderilla sartzaile valentziarra hil zuen *Arruceto* edo Iruñean 1977ko uztailaren 8an Jose Joakin Esparza Sarazibar zezen plazaren sarreran hil zuen *Silletero* zezenen kasta.

Aldoka-maldoka Lezoko Herriondo auzora, hor ere bai baita Mihura baserria.

Aldoka-maldoka ibiltzen direnak hegalariaiak dira, lizar hegalariaiak (*Fraxinus excelsior*). Baina, noiztik egiten du hegan lizarrak? Nolatan ikasi zuen hegan egiten? Nork erakutsi zion, bere adarrez erakusten duen izarrak akaso? Lizar hegalaria berez ikasita jaiotzen da. Berez dohatsua den gisa berean, alegia. Lizar hegalariaiak jaiotzen eta bizitzen direnak dira: beste zuhaitzen baten gainean, teilatu gainean... Garai batean, arriskua sumatzen zitzaion edozer egin behar zuenak soinean lizar hegalariren baten hostoa bazeraman, babestuta zela zioten.

Aldoka-maldoka Bizkaian, Nafarroan eta Gipuzkoan barrena ibili ondoren, etxeko karreraren teilatu gainean dudan lizar hegalaria agurtu eta ohera. ■

S.A.T. LEGU
LANDAREK

Biberoak SAT Legu

C/ Goitioltza Auzoa, 36 · 48196 Lezama Bizkaia
Telf: 944 556 198 · biberoaklegu@gmail.com
www.satlegu.com

Kala LORE APAINDURAK

Paisajismo zerbitzua
Terraza eta lorategiak diseinatzea

San Frantzisko, 24 · 20870 Elgoibar
Tel: 943744516

Lislore

LORE DENDA

☎ 948 225 179
Kale Nagusia, 70 · Iruña
lisloredenda@hotmail.com